

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasun Departamentuak OMEk egiaztatutako edoskitze naturalei laguntzeko zentrozen sare bat bultzatuko du

Profesionalak prestatzeko plan bat hasi du, Jaiotzari eta Edoskitzaroari Laguntzeko Humanizazio Ekimenak (IHAN) berrmatuta

Asteazkena, 2017.eko urriak 18

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak profesionalak prestatzeko plan bat hasi du Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Hautzaroen eskubideak babesteko agentziak (UNICEF) egiaztatutako edoskitze naturalari laguntzeko zentrozen sare bat sortzeko. Ekintza hori Jaiotzari eta Edoskitzaroari Laguntzeko Humanizazio (IHAN) Ekimenaren barruan dago. Bi erakunde horiek sustatutako mugimendu bat da, osasun-zerbitzuei edoskitze natural eskusiboa babesteko, sustatzeko eta laguntzeko jarduerak har ditzaten eskatzeko helburuarekin.



Osasun Departamentuak bultzatzen duen profesionalen lehen prestakuntza planaren parte-hartzaileak.

Edoskitze naturala lehentasunezko lan-ildoetako bat da 2014-2020 Osasun Planaren Haurren Osasun Estrategiaren barruan. Edoskitzeari buruzko Berriarazo eta arazko prestakuntza-plan bat bultzatuz, Osasun Departamentuaren helburua da ama-haurren arretan lan egiten duten profesionalen jarduera klinikoak amaren esneak jaiotzetik dituen onuren ebidentzia zientifiko eguneratuan oinarrituta egotea.

Prestakuntzaren asmoa Osasunbideko langile guztien jarduerarizpideak bateratzeko baldintzak sortzea da, amen eta elkarrean laguntzarekin. Helburua da edoskitze naturalen hasiera-tasa handitzea, esperientziak arrakastatsua izatea lortzea eta denboran gehiago luzatzea, izan ere, bere ustez, haurren osasunean hobekuntza nabariak egongo dira.

Bederatzi profesionalen osatutako prestakuntza-talde eragilea

Irakaskuntza-plana gaur jarri da abian, [prestatzaileen lehen prestakuntza-ikastaro](#) batekin. Aurreikuspenen arabera, ama-haurren arretan zuzeneko erantzukizuna duten Osasunbideko beratzi profesionalak parte hartuko dute. Ikastaro hau, Plangintza, Ebaluazio eta

Ezagutzaren Kudeaketa Zerbitzuaren Prestakuntza Atalaren laguntza egindakoa, urriaren 18tik 20ra bitartean egingo da IHANen zuzendaritza eta babespean. Guztira 20 ordukoa izango da, eta horien barruan sartzen dira saio teorikoak eta eskola praktikoak Nafarroako Ospitaleguneko sarreraren arloan.

Ikastaro honetan parte hartzen duten pertsonak planaren talde eragile bihurtuko dira, IHANen eskumenak eta egiaztagiria lortuta, ezinbestekoa baita Osasunbideko langile gehiagori edoskitzeari buruzko prestakuntza emateko, izan ere, haien lana, amen eta jaioberrien arretarekin lotuta dago. Diziplina anitzeko talde bat da, aurretik edoskitzean prestakuntza eta sentsibilitatea dutenak, Osasunbideko zenbait arreta-esparrutakoak. Han, haurdunei edo haurrei arreta ematen zaie.

Pertsona hauek prestatuko dira: Marta Aldaz, Tuterako "Reina Sofía" Ospitaleko emagina; Gabriel Durán, Lizarrako "García Orcoyen" Ospitaleko Pediatria Zerbitzuko burua; Ana Ferrández, Elizondoko osasun-zentroko Pediatriako erizaina; Edurne Ciriza, Antsoaingo osasun-zentroko pediatra; Olga Burgos, Andraizeko Sexu eta Ugalketa Osasunaren Arretako Zentroko (SUOAZ) emagina; Lourdes Gómez, Nafarroako Ospitaleguneko amen lehen solairuko pediatra; Marian García, Nafarroako Ospitaleguneko Obstetrizia eta Ginekologia Zerbitzuko ginekologoa; Marian Garro, emagina eta edoskitzeko nazioarteko aholkularia (IBCLC) eta Nahiara Oscoz, Edoskitze Naturalaren Aldeko Elkartearen Espainiako Federazioak (FEDALMA) egiaztatutako erizain-laguntzailea, Edoskitze naturaleko aholkulari gisa.

Talde eragile honen lehen prestakuntza-ekintza abenduaren 13, 14 eta 15ean izango da, IHANek babestutako ikastaro batean, eta Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako osasun-arloetako 45 profesionalak parte hartzea aurreikusten dute. Lehen ikastaro honetarako erregistratutako 130 izen-ematek baino gehiagok ekimenaren harrera profesional ona erakusten dute. Etorbizunean ere jarraituko dute ematen.

Osasun Departamentuaren aurreikuspena da epe laburrera beste ikastaro batzuk antolatzea hasierako eskaera honi erantzuteko eta urtero beste prestakuntza-jardunaldi batzuk antolatzen jarraitzeko. Profesionalen prestakuntza hau funtsezkoa izango da Jaiotzari eta Edoskitzeari Laguntzeko Humanizazioan egiaztatzen duten zentroyen sare bat sortzeko.

Prestakuntzaz gain, irakasleen talde eragileak edoskitzearen eta jaiotza gertatzen den unearren arretan jardunbide egokiak txertatzeko lan-taldeetan edo batzordeetan parte hartzeko konpromisoa ere hartu du.

Edoskitze naturaleko tasa eskusiboa % 66,7koa jaiotza eta 15 egunera

Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko Zerbitzuak bildutako 2016ko datuen arabera, Nafarroako amen % 67k umea jaiotza eta 15 egunera edoskitze natural eskusiboa mantentzen du. Tasa hori % 49,9ra murrizten da lau hilabetera, eta erdira, jaiotza eta sei hilabetera (% 32,8).

Osasun Departamentuaren helburua, OMEk adierazitakoaren bat, tasa hori bizitzaren lehen sei hiletan hainbeste ez murriztea lortzea da, eta 2025. urterako gutxienez % 50ean mantentzea lortzea.

Nabarmenezkoa da edoskitze natural eskusiboa mantentzeko tasa sei hiletara nabarmen handitu dela Nafarroan 2008. urtetik, % 20tik % 32,8ra, ospitaleetan eta Lehen mailako Arretan egiten ari diren arreta perinataleko ereduaren egindako aldaketek esker.

Estrategia horrek ere erakusten du emakumeen % 33k ez duela mantentze edoskitze natural eskusiboa jaiotza eta 15 egunera, esne artifiziala aukeratu duelako (% 11,8) edo biak konbinatu dituelako (edoskitze mistoa, % 21,5). Helburua da laguntza profesionalik handiena ematea amei erditu eta gero, lehen egunetan edoskitze natural eskusiboaren tasa handitzeko, zailenak direlako esperientzia arrakastatsua bermatzerako orduan.

Laguntza profesionala ezinbestekoa edoskitzea arrakastatsua izateko

Osasun Departamentuak zenbait sentsibilizazio- eta laguntza-ekintza ezarri ditu Nafarroan edoskitze naturala hasteko tasa orokorra handitzeko, edoskitze natural eskusiboa handitzeko eta denboran luzatzeko. Horrela, OMEk eta UNICEF/IHAN erakundeek ezarritako lerrei erantzun die, izan ere, horien arabera, edoskitze naturala ezinbestekoa da haurren eskubideak babesteko.

«BabyFriendly Hospital Initiative» (IHAN, gaztelaniaz) ekimenak frogatu du tresna eraginkorra dela emakumeek jaioberriak zaintzeko eta elikatzeko modua askatasunez erabakitzeko duten eskubidea babesteko, bizitzaren hasierarik onena eskaintzeko. Edoskitze naturalean emaitzak ematerako orduan frogatutako ebidentzia duten jardueren artean daude etengabeko laguntza, haurdunaldian, erditzean eta puerperioan aholkuak eta amatasun-hezkuntza emanez.

Osasun arloko profesionalak zenbait inguruetan amei emandako babes profesionala, haurdunaldian nahiz ospitalean egon ondoren etxera itzultzean, emaitza arrakastatsuen ebidentzia duen estrategietako bat da.

IHANek edoskitzean egiaztatutako osasun-zentro edo ospitale bat izateko baldintzak

IHANek zazpi baldintza ezartzen ditu osasun-zentro bat edoskitzeari laguntzeko zentro gisa egiaztatzeko: edoskitze naturalari buruzko idatzizko arautegi bat izatea eta zentroko langile guztiek ezagutzea; langile guztiak politika horri jarraitzeko gaitzea; haurdunei eta beraien familiei titia emateari eta nola egiteari buruzko informazioa ematea; amei edoskitzearen hasieran laguntzea eta ospitaleko altaren ondoren lehen 72 orduetan artatzen direla ziurtatzea; titia ematen duen amari laguntza eskaintzea 6 hiletan edoskitze natural eskusiboa mantentzeko eta, eta gero, elikadura osagarriarekin jarraitzeko; bularreko umeen amei eta familiei giro harkorra ematea eta osasun arloko profesionalen eta erkidegoaren artean lankidetzaz sustatzea, edoskitze-tailerren eta tokiko laguntza-talde bidez.

Ospitaleen kasuan, IHANek "[Edoskitze natural egokirako hamar urrats](#)" direlakoak betetzen dituzte zentroei ematen die egiaztagiria (Estatuko eta nazioarteko erakundeek jardunbide kliniko egokiko estandar gisa onartu dituzten proba zientifikoetan oinarrituz). Horrez gain, amaren esne Ordezkoak Komertzializatze Kodea betetzea ere baloratzen du, informazio egokia eta laguntza ematea titia ez ematea erabakitzen duten amei, eta erditze politika bat egotea, edoskitzea garaiz hasteko, betiere amaren eta bere umearen osasun-egoerak hori egiteko aukera ematen badute.

IHANen baldintzak lau fasetan ezartzen dira (aurkitzea, garatzea, hedatzea eta izendatzea). Gaur egun, edoskitzeari laguntzeko zentro gisa egiaztatzeko prozesua formalki hasi dute Tuterako "Reina Sofía" Ospitaleak eta Antsoingo osasun-zentroak eta Andraizeko SUOAZ. Beste zentro batzuek egiaztatzeko urratsak hasi dituzte eta pixkanaka ekipamendu gehiago sartzeko asmoa da, profesionalak jardunbide egokiak egiaztatzen eta konpromiso handiagoko baldintzak betetzen dituzten heinean. Horretarako, talde eragilea funtsezko elementua da.

Xedea da gaur hasten den prestakuntza-planak Nafarroako osasun-zentro gehiago bultzatzea lehen fasean aurrera egiteko. Egiaztatze-prozesuaren lehen urratsa gainditzeko ezinbestekoa da interesa duen taldeak edoskitze-batzorde bat eratzea eta IHAN egiaztatzearen arduradun bat izendatzea osasun-zentrorako, hasiera autoebaluazioa egin dezan eta eskumeneko agintarien laguntza lor dezan. Horren guztiaren ondoren 1D faseko ziurtagiria eskatu ahalko dio IHANi.